


www.felix-baltistan.org

Karakorum from

# Nuevos retos en el desarrollo del valle de Hushé

## Somos los mismos

Ya nos conocéis. Somos Baltistán Fundazioa (BF), una ONG de cooperación al desarrollo que trabaja por el desarrollo humano, integral y endógeno de las personas de las comunidades del Valle de Hushé, en Baltistán, en la región de la alta montaña del norte de Pakistán, en la cordillera del Karakorum, donde se encuentran cuatro de los ochomiles: K2, Broad Peak, Gasherbrum I y Gasherbrum II. Como recordáis, los primeros que impulsaron la puesta en marcha de la Fundación fueron un grupo de montañeros "ochomilistas" vascos, que buscaban el desarrollo humano de las gentes del valle, de aquellos que, como porteadores, habían compartido con ellos las ascensiones a la montaña. Así, desde que la Fundación se creó en 2001, se ha tenido muy claro que el objetivo pasa por dotar a los habitantes de la zona de las capacidades e infraestructuras necesarias para que ellos y ellas promuevan y gestionen su modelo propio de desarrollo económico sostenible y equitativo para hombres y mujeres.

## Pero tenemos nuevos problemas y retos

Hemos hecho muchas cosas. Hemos puesto en marcha infraestructuras, hemos impulsado la mejora de la producción agrícola, hemos hecho posible un sustancial cambio –en igualdad y calidad– en el proceso educativo. Hemos generado espacios y prácticas en las que se ha dado protagonismo a las mujeres. Pero también nos hemos equivocado. También hemos hecho mal las cosas.

Hemos gastado demasiado dinero en contratación de personal. Allí en Pakistán, pero sobre todo aquí en Euskal Herria. Un exceso de personal laboral que, al margen de su buena voluntad, ha lastrado económicamente a la Fundación y le ha impedido destinar a Pakistán todo el dinero deseable.

Por otro lado hemos dispersado demasiado los proyectos e intervenciones y no está claro que hayamos conseguido que sean lo propios habitantes del valle los que lideren su proceso de desarrollo.

## Y nuevas propuestas de cambio

Ya hemos empezado a cambiar. Aquí solo tenemos el mínimo imprescindible de personal fijo y vamos a tratar de reducir sustancialmente los gastos de administración en el valle. Aquí tenemos un nuevo local gratuito y vamos a impulsar el trabajo de los voluntarios. En síntesis: la Fundación no va a ser una organización dedicada a crear puestos de trabajo, sino que buscará canalizar financiación y esfuerzo voluntario para el desarrollo humano del valle, protagonizado por su propia gente.

- Hemos cambiado también el nombre. Ahora somos *Baltistán Fundazioa*. Sin más.
- Pero nuestros principios se mantienen. Así algunos de ellos:

  1.- Modelo de desarrollo integral definido y sostenible.

  2.- Transparencia y austeridad radical en la gestión.

  3.- Autogestión sostenible social y económicamente de la organización en el valle.



## Urgencias y prioridades

La formación humana y profesional es uno de los pilares de la Fundación, como llave para el desarrollo socio-económico de la población y también como herramienta de empoderamiento de las mujeres del valle. BF diseño un plan de educación a 10 años para el conjunto del valle. Este plan se ha establecido sobre todo en la escuela Munawar en la localidad de Machulo del citado valle de Hushé y de verdad creemos que se está haciendo de forma muy adecuada, por lo que se pretende extender al resto de las escuelas del valle. Esta escuela Munawar es una de las piedras angulares sobre las que BF está proponiendo la mejora del sistema educativo en el valle de Hushé.

Con estos antecedentes y con esta perspectiva, lo que pretendemos es mantener y desarrollar una adecuada escolarización de mas de 500 niñas y niños en el valle de Hushé.

*En la hoja de publicidad de la Fundación en esta misma Revista os indicamos el modo detallado para colaborar.*




© www.txemacama

Machulo Montains

# Erronka berriak Hushe ibarraren garapenean

## Betikoak gara

Ezagutzen gaituzue. Baltistan Fundazioa gara (BF), Pakistan iparraldeko Baltistan eskualde menditsuan kokatuta dagoen Hushe ibarraren garapen gizatiar, integral eta endogenoan lanean ari den Gobernuz Kanpoko Erakundea. Karakorum mendilerroaren oinean gaude, zortzi milako mendietatik lau aurkitzen diren eremuan: K2, Broad Peak, Gasherbrum I eta Gasherbrum II. Gogoan izango duzue hainbat euskal "zortzimilazale" izan zirela Fundazioaren sorrera bultzatu zutenak, eurekin mendiak igotzeko lanak partekatu zituzten zamaketarien eta ibarreko beste biztanleen giza-garapenaren bila. Horrela, bada, 2001ean Fundazioa sortu zenetik, oso garbi izan dugu helburua bertako gizon eta emakumeei beren garapen jasangarria eta berdintzailea bultzatzeko beharrezko trebezia eta azpiegiturak eskaintzea baino ez dela.

## Baina erronka eta arazo berriak ditugu

Gauza asko egin ditugu. Azpiegiturak eraiki eta martxan jarri ditugu, nekazal ekoizpenean hobekuntzak bultzatu ditugu, hezkuntza prozesuaren aldaketa sakonak –kopuruan eta kalitatean– ahalbidetu ditugu. Emakumeei protagonismoa eskaini dieten guneak eta praktikak sortu ditugu. Baina okerrak ere egin ditugu. Hanka ere sartu dugu.

Diru gehiegi gastatu dugu langileak kontratatzeko. Bai han Pakistanen, baina batez ere Euskal Herrian. Langile gehiegi hartu dira eta, beren borondate ona ederto frogatu duten arren, Fundazioarentzat zama astun bihurtu dira. Horrela ezinezkoa izan zaigu Pakistanera nahi beste diru bidaltzea.

Bestalde, proiektu eta esku-hartzeak gehiegi sakabanatu ditugu, eta ez dugu garbi ibarreko biztanleak beren garapen prozesuak lideratzeko bidean jartzea lortu ote dugun.



ARGAZKIAK: FUNDAZIOA

## Hona aldaketarako proposamen berriak

Aldaketa abian da. Hemen gutxieneko pertsonal finkoa dugu dagoeneko, eta ibarreko administrazio gastuak sakonki murrizten saiatuko gara. Egoitza berria dohainik dugu eta boluntarioen lana bultzatzea izango da hurrengo erronka. Laburbilduz: Fundazioa ez da izango lanpostuak sortzeko erakunde bat, borondatezko finantzazio eta ahaleginak bideratzen saiatuko den erakundea baizik, ibarreko biztanleek sortutako garapen gizatiarra bultzatzeko asmoa duena.

- Izena ere aldatu dugu. Aurrerantzean, *Baltistan Fundazioa* izango gara. Besterik gabe.
- Baina sorrerako printzipioei eusten diegu. Hona horietako batzuk:

  1.- Garapen integralerako eredu definitu eta jasangarria.

  2.- Gardentasuna eta erabateko austeritatea kudeaketan.

  3.- Ibarreko erakundearen giza- eta ekonomia-autokudeaketa jasangarria.

## Premiak eta lehentasunak

Fundazioaren oinarrietako bat giza- eta lanbide-prestakuntza da. Biak dira biztanleen garapen sozio-ekonomikorako eta ibarreko emakumeak botere-guneak eskuratzen hasteko giltza. BFk ibarrerako 10 urteko hezkuntza-plana zirriborratu zuen. Plangintza hori Hushe ibarreko Machulo herriko Munawar eskolan gauzatu da nagusiki. Zinez pentsatzen dugu oso modu egokian garatzen ari dela eta ibarreko beste eskoletara zabaldu nahiko genuke. Munawar eskola hori BF garatzen ari den hezkuntza sistemaren hobekuntzarako zutarrietako bat da.

Aipaturiko aurrekari eta ikuspegiarekin, Hushe ibarreko 500 neska-mutiko baino gehiagoren eskolaratze egokia mantendu eta garatu nahi dugu.

*Aldizkari honetan duzuen Fundazioaren publizitate orrian azaltzen dizuegu nola lagun dezakezuen.*